

PROGRAMA  
EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2022



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

Bilbao

gizartea eta kultura  
garaikidea



# BABESTU. SORKUNTZA GARAIKIDEARI LAGUNTZEKO PROGRAMA

Sorkuntza eta hedapen artistikoa sustatzeko urteko deialdia, hainbat diziplinarekin lotutako proiektuen bidez, Azkuna Zentroan garatu eta aurkezteko.



## Victoria Ascaso

*So Sad Today*

*So Sad Today* gaur egungo kultura digitalen inguruko ikerketa-proiektu transdiziplinarra da, eta mundu fisikoan garatutako identitateen eta pertsona bakoitzaren mundu digitaletan garatutakoen artean sortzen den frikzioa du ardatz.



## M Benito Píriz

*El panda más dramático del mundo*


*El panda más dramático del mundo* mugikorraren ohar-blokean idatzitako liburu bat da. Literaturaren egiturak hautsi, idazteko modu fresko eta erakargarri bat bultzatzeko, esaterako, mugikorraren hiztegi prediktiboa edo hizkuntza inklusiboa erabiltzea.



## Blanca Ortiga

*Shifter!*

Eskulturnaren eta performatibitatearen arteko harreman-puntuan kokatzen den *Shifter!* ikerketa- eta sorkuntza-proiektuak desbideratzean jartzen du arreta, hor egoera eskultorikoak eta ekintza ingurune performatiboetan artikulatzen baitira.



## Ander Perez Puelles *Ágil y un placaje*

*Ágil y un placaje* proiektuak eta bera egiteko prozesuaren zati handi batek grabazioaren ezaugarriak eta mugimendua ikertzen ditu, jolasetik bertatik abiatuz, errealitatearen aldi baterako baliogabetzaile gisa hartuta. Prozesuaren fase honetan, grabazioetarako tresnak eraikitzean jarriko da arreta.



## Macarena Recuerda Shepherd

*Cosa. Intervenir un cuerpo*

*(Gauza. Gorputz batean esku hartzea)*

*Cosa* esku hartutako gorputzari buruzko ikerketa bat da. Laborategi koreografiko bat, material eta objektu desberdinekin interpretearen gorputzari nola eragin dakioken ikertu nahi duena, irakurketa ugari sortuz.



## **Tunipanea** *El íntimo ritmo del azar: diálogos entre máquinas imperfectas*

*El íntimo ritmo del azar* ikerketa artistiko pertsonaleko prozesua 2020ko maiatzean hasi zen, ziurgabetasun eta ezegonkortasun sozial handiko une batean. Soinu-instalazioa bezalako ingurune batean ausazkoa denaren kontzeptuak dituen aukerak esploratzeko motibazioa da abiaburua.

---

## ARTISTA AZ-KIDEAK

Sorkuntzari laguntzeko programa, lengoia garaikideei buruzko inspirazio-iturri diren lanak egiten dituzten artistei laguntzen diena.



### **Elena Aitzkoa**

**Elena Aitzkoa** (Apodaka 1984), 2022ko Az artista kide berria, besteak beste, eskulturan, marrazketan, poesian eta performancean eta filmak egiten aritzen da. Haren sorkuntzalanak ekosistema heterogeneo bat dira, eta ingurune gutxi-asko hurbileko elementu fisikoak eta emozionalak eta bizi-esperientziak dituzte oinarrian. Fokua eta sormen-energia materiaren konfigurazio poetikoan jartzen du, eta edertasunean, izakien arteko lotura- elementu gisa hartuta.



### **Laida Lertxundi**

#### *8 Topaketa*

**Laida Lertxundi** Artista Az-Kidea da 2021etik eta 8 Topaketa lana garatzen du. Proiektuak zortzi tailer ditu, eta esperimentu pedagogiko bat sortu nahi du instituzio akademikoen mugetatik kanpo.



### **Miquel García**

**Miquel A. García (aka Xedh)**, 2022az geroztik Az artista kide berria da, musika esperimentalaren eta soinu-artearen arloan lan egiten duen artista. Bai bakarka bai taldeka, European, Amerikan eta Asian jardun du. Hainbat artistekin aritu da bai estudioan eta bai zuzenean, ehun diskotan baino gehiagotan agertuz.



### **Oscar Gómez Mata**

#### *Catálogo de derivas*

**Oscar Gómez Matak**, Artista Az-Kideak, Deriben Katalogoa proiektuarekin jarraitzen du, eguneroko hiri-paisaiak behatu eta arakatzeko deambulazioen proposamena. Deriba hauek egiteko, eskatu AzInfon.